



**UPV/EHUren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN
DEIALDIA
(2025)**



ATARIKOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eginkizun funtsezkoa da ikerketa; ikerketa bera baita jakintza sortzeko tresna, irakaskuntzaren oinarria, komunitatearen aurrerapenerako baliabidea eta jakintza gizartera transferitzeko euskarria. Horrela, bada, unibertsitateak bere helburu nagusien artean biltzen du ikerketa zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoa garatzea, baita ikertzaileak prestatzea ere. Era berean, ikertaldeak sortu eta garatzea sustatzen du, eta kalitatea, zeharkakotasuna, diziplina gaindikotasuna eta nazioarteko bikaintasun sareetan txertatzea bultzatzen ditu, bai eta beste erakunde edo enpresa batzuekin talde mistoak eratzea ere.

Unibertsitatearen Estatutuetan jaso legez, UPV/EHUK onartu eta bermatu egiten du ikertzeko askatasuna, komunitate zientifikoak onetsitako lege eta kode deontologikoen muga barnean. Gainera, ikerketan eta zientziaren zabalkundean euskara sustatzeko konpromisoa hartzen du, baita berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko ikerketa bultzatzeko konpromisoa ere, hobeto ezagutzeko eta ulertzeko mundu osoan giza garapena eta garapen jasangarria mehatxatzen dituzten arazoak. Alde horretatik, ikerketak ekarpena egingo dio, era kontziente eta erabakigarrian, Garapen Jasangarrirako Estrategiaren 2030 Agenda (Nazio Batuak, 2015) gauzatzeari.

UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoak "Unibertsitateko I+G taldeen artean diziplinaz gaindiko lankidetzaren sustatzea" jasotzen du Ikerkuntza eta Transferentzia ardatzaren helburuen artean, ekintza espezifikoak delarik taldeen diziplinarteko eta diziplinaz gaindiko lankidetzarako deialdi publikoak bultzatzea. Deialdi honen bidez, aitortza duten ikertaldeen arteko elkarlana bultzatu nahi da eta, horrela, garrantzi handiko proposamen bateratuei heldu ahal izango diete, ikerketon inpaktua eta ikusgarritasuna bultzatzeko. Zehazki, asmo nagusia da diziplinartekotasuna areagotzea eta taldeen arteko lankidetzaren bultzatzea bideratutako ekintza espezifikoak finantzatzea, erronka partekatuei heltzeko, unibertsitateko ikergune berean hainbat ikertalderen arteko ikerketa bultzatzeko, eta unibertsitateko taldeen eta kanpoko erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea.

Era berean, UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren beste helburuetako bat da ikertalde berriak sortzea eta ikertzaile berriei pizgarriak ematea, berriazko ekintza gisa ezartzen delarik langile hasiberriei zuzendutako deialdiak egitea, ikertzaile nagusi gisa lidergoan has daitezen, bereziki sustatuz emakume ikertzaileen lidergoa. Deialdi hau lidergo potentziala duten ikertzaile gazte horiei zuzenduta dago bereziki, baldin eta aldez aurretik ikerketa proiekturik gidatu ez badute, edo, eginda

ere, noizbehinka edo senior batekin batera egin badute. Testuinguru horretan, eta aurreko paragrafoan planteatutako helburuekin bat etorritik, diziplinarteko proiektuak bultzatuko dira bereziki, hainbat arloren arteko elkarlanean egindako ikerketa konbinatzen dutenak, gizarte intereseko erronkei heldu ahal izateko, batez ere Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) lotuta. Bereziki, Berdintasunaren arloko Zuzendaritzarekin lankidetzan, 5. GJHari lotutako ikerketa bultzatuko da: genero berdintasuna.

Globalizazioak erronka handi baten aurrean jartzen gaitu: XXI. mendeko gizarteak planteatzen dizkigun erronken aurrean erantzun kolektiboa ematea, elkarlanean. Horretarako, ezinbestekoa da hainbat jakintza arlo biltzen dituzten nazioarteko ikertaldeak bultzatzea eta sustatzea. Nazioartekotzea ere bada UPV/EHUren 2022-2025 Plan Estrategikoaren eta Euskal Unibertsitate Sistemaren 2023-2026 Planaren zeharkako ardatzetako bat. Europako *Horizon Europe* programak testuinguru adierazgarria ematen du horretarako, zeinetan presentzia sendoa baitu UPV/EHUK dagoeneko. Bertan, gure ikertzaileek lidergoa bilatzean kontzentratzen dira egungo helburuak. Bestalde, azpimarratu behar da Latinoamerikak aukera ematen duela maila goreneko ikerketa sustatzeko eta bultzatzeko, eta gizartearen etorkizuneko erronka handiei erantzun bateratuak bilatzeko, arlo guztietan (zientzia, teknologia, ekonomia, gizarte, etab.). Deialdi honek helburu bikoitza du nazioarteko lankidetzaren testuinguru honetan. Alde batetik, UPV/EHUren ikertaldeak Europako esparruan sendotzea bilatzen du. Bestetik, "hazi finantzaketaren" bidez, UPV/EHUren eta Latinoamerikako unibertsitateen arteko harreman sare bat sustatzea ahalbidetuko duen esparru bat sortu nahi da. Azkenik, UPV/EHUren egitekoen artean biltzen da -Estatutuetan jasota dagoenez- gizarte ongizatea hobetzea. Inpaktu soziala neurtzeko, eta ikertaldeek sortutako jakintzaren ikusgaitasuna bultzatze aldera, modalitate berri bat jarriko da abian deialdi honetan.

Deialdi honetara, guztira, 770.000 euro bideratuko dira, bost modalitatetan banatuta. Hartara, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako 2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Planean jasota dagoen programa kontratuaren barruan esleitu legez banatuko da finantzaketa, bertan ezarri den aurrekontu kredituaren arabera, honako ekintza hauek kontuan hartuta: *"GJHeekin eta RIS3 estrategiarekin bat datozen taldeen arteko diziplinaz gaindiko lankidetzak bultzatzea"*, *"Ikertzaile berrien eta emakumezko ikertzaileen lidergoa bultzatzea"*, *"Nazioarteko deialdietan parte-hartzea eta lidergoa bultzatzea"*, *"Latinoamerikarekiko ikerketa harremanak sustatzea"* eta *"Ikerketaren eta transferentziaren inpaktu sozialaren neurketa eta ikusgarritasuna bultzatzea"*. Kopuru hori handitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu aukeren arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean, IGBB) onespina jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak erabaki du UPV/EHUko ikerketa proiektuetarako laguntzen deialdia argitaratzea (2025). Horren arabera, lehiaketa prozesu bat jarri da abian bost modalitaterei dagozkien ikerketa proiektuak hautatzeko, dokumentu honen oinarrietan jasotako prozedurarekin eta irizpideekin bat etorrita.

1. oinarria.- DEIALDIAREN HELBURUA ETA MODALITATEAK.

- 1.1. Deialdi hau bost modalitatetan banatuta dago, zeintzuek berariaz erantzuten baitiete honako helburu hauei: diziplina arteko eta diziplinaz gaindiko lankidetza, ikertzaile berrientzako laguntza eta ikerketaren nazioartekotzea. Honako hauek dira modalitateak:
- 1. modalitatea. Ikertaldean arteko lankidetza proiektuak.
 - 2. modalitatea. Ikertzaile hasiberriek gidatutako ikerketa proiektuak.
 - 3. modalitatea. Horizonte Europa programako proiektuetan lidergoa sustatzea.
 - 4. modalitatea. Latinoamerikarekin egiteko ikerketa proiektuak.
 - 5. modalitatea. Inpaktu soziala neurtzeko proiektuak.
- 1.2. Deialdi honetako modalitate bakoitzeko laguntzak erabiliko dira laguntza horien bidez garatu eta gauzatu beharreko jarduerari lotutako gastuak ordaintzeko, ez beste ezer.

2. oinarria.- BALDINTZA OROKORRAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

- 2.1. Deialdi honetan onartzen diren laguntzen onuradunek modalitate bakoitzean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.
- 2.2. Ezin izango dira deialdi honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan honako egoera hauetakoren batean daudenak:
- a) Epai irmo bidez dirulaguntza publikoak jasotzeko ezintasuna dutenak.
 - b) Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak egunean ez dituztenak.
 - c) Ebazpen irmo bidez eta kasuan kasuko legeen arabera, dirulaguntzak jasotzeko ezintasuna dutenak.
 - d) Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen xede diren jarduerak egiten dituzten ikertaldeetako kideak, baldin eta aurretik adierazitako egoeraren batean badaude.

1. MODALITATEA. IKERTALDEEN ARTEKO LANKIDETZA PROIEKTUAK.**3. oinarria.- LANKIDETZA PROIEKTUEN MODALITATEAREN XEDEA.**

Modalitate honen helburua da UPV/EHUko ikertaldeak diziplinartekotasuna handitzea, taldeen eta kanpoko erakundeak arteko elkarlana bultzatuz, era horretan aurre egiteko garrantzi handiko proposamen bateratuei, haien inpaktu eta ikusgarritasuna ahalik eta handiena izan dadin.

Honako hauek izan behar dira lankidetzan egindako ikerketa proiektuen helburu zehatzak:

1. Europako finantzazioa duten proiektuei ekitea ahalbidetuko duten jarduera berritzaileen garapena sustatzea, bereziki osasunaren arloan, nahiz eta ez soilik eremu horretara mugatuta.
2. Ikertaldeak arteko elkarlana, Mugaz Gaiendiko Lankidetzak Laborategiak (LTC) edo *Joint Research Laboratory* (JRL) gisako egitasmoen bitartez;
3. Unibertsitateko Ikerketa Institutu (UII) baten edo Ikerketa Intentsiboko Gune Propio (IIGP) baten barruko ikertaldeak arteko lankidetzak.

4. oinarria.- LANKIDETZA PROIEKTUAK.

4.1. UPV/EHUko ikertaldeak aitortuak elkarlanean egindako ikerketa sustatzera bideratuta egon behar du eskaerak, eta haren helburua izan behar du guztien inpaktua eta ikusgarritasuna erraztuko duten proposamenak martxan jartzea. Kasu guztietan, UPV/EHUko bi ikertaldeak parte hartu behar dute gutxienez, 5.1 oinarrian aipatutako deialdiren batean aitortuta daudenean. Modalitate horren barruan, honako lankidetzak motak hauek daude jasota, elkarren artean baztertzailak:

- a) Hainbat taldek proposamen bat aurkeztea, elkarlanean Europako proiektu bat aurkezteko. Eskaeran adierazi behar dira zein *Work Program* deritzenetara aurkeztu nahi duten (erreferentzia eta *topic*-a).
- b) Hainbat taldek proposamen bat aurkeztea, ikerketa gai baten inguruan Mugaz Gaiendiko Lankidetzak Laborategi (LTC) bat sortzeko eta garatzeko; hau da, EAEko eta Frantziako erakundeak parte hartuko duten egitasmo bat (azken horren kasuan, Bordeleko Unibertsitatea bereziki). Eskaeran adierazi behar da indarrean dagoen edo aurreikusi den LTCaren izena.
- c) Hainbat taldek proposamen bat aurkeztea, ikerketa gai baten inguruan *Joint Research Laboratory* (JRL) bat sortzeko eta garatzeko; hau da, EAEko erakundeak parte hartuko duten egitasmo bat. Eskaeran adierazi behar da indarrean dagoen edo aurreikusi den JRLaren izena.
- d) Unibertsitateko Ikerketa Institutu (UII) baten edo Ikerketa Intentsiboko Gune

Propio (IIGP) baten jarduerak, hainbat ikertalde aitorturen parte hartzea dutenak. Eskaperan adierazi behar da Ullaren edo IIGParen izena.

- e) Aurrez aipatutako lau jarduerak ez diren beste batzuk IGBBk ebaluatuko ditu, eta onartu ahal izango dira, baldin eta 3. oinarrian deskribatutako deialdiaren xedearen barruan badaude eta ikertalde biren edo gehiagoren parte hartzea badute.

UPV/EHUren eta beste erakunde batzuen parte hartzea biltzen duten partzuergoak osatzera bideratuta egon daitezke eskaerak; hala eta guztiz ere, deialdi honetan UPV/EHUko taldeak baino ez dira finantzatuko.

4.2. Deialdiko modalitate honi 250.000 euro esleituko zaizkio.

4.3. Eskaerak ingelesez idatzi beharko dira.

5. oinarria.- IKERTALDE ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

5.1. Ezinbesteko baldintza da proposamenean gutxienez UPV/EHUko bi ikertalde aitortu eta aktibok parte hartzea. Ikertalde aitortu eta aktibotzat joko dira Euskal Unibertsitate Sistemaren laguntzen 2021eko deialdian finantzatu direnak, edota UPV/EHUren 2021., 2022. edo 2023. urteetako deialdietako batean finantzatutakoak.

5.2. Ikertaldeak osatzeko, proposamenean parte hartzen duen ikertalde bakoitzak UPV/EHUko 3 pertsona aurkeztu beharko ditu, gutxienez. Ikertalde bakoitzak modalitate honetako proiektu bakar batean baino ezin izango du parte hartu. Ikertalde batek proiektuan parte hartzen duela ulertuko da talde horretako kideren bat lankidetza proiektuaren ikertaldeko kide denean.

5.3. Ikertzaile nagusiek (IN) baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Doktore izatea.

b) UPV/EHUUn arduraldi osoz aritzea.

c) Kolektibo hauetako bateko kide izatea:

i. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.

ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHUUn; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpostu iraunkor batean finkatzeko zain dauden lan kontratudun bitarteko irakasleak.

-
- 5.4. Proiektuek bigarren ikertzaile nagusi bat eduki ahal izango dute. Horrek, nahitaez bete beharko ditu 5.3 oinarriko baldintzak, eta ikertzaile nagusi gisa jardungo du ikertzaile nagusia ez dagoenean.
 - 5.5. Gutxien dela, ikertzaile nagusietako batek kontratu harremana izango du UPV/EHUrekin, eta unibertsitateak bere gain hartuko ditu proiektuaren kudeaketa instituzionalari lotutako funtzioak (sinadura UPV/EHUren izenean, organikoen maneiua, etab.).
 - 5.6. Ikertalde eskatzailea osatzen duten gainerako pertsonak (gutxienez UPV/EHUko 3 pertsona ikertalde bakoitzeko) dagokien ikertaldeko ikertzaile gisa jasota egon beharko dira, eta haien kontratuaren iraupenak laguntzaren gauzatzeko epea barne hartu beharko du, gutxienez.
 - 5.7. Eskaeran sartu ahal izango dira UPV/EHUko beste ikertzaile batzuk, baldin eta, ikertalde eskatzaileetako kide izan ez arren, lankidetza proiektua osatzen duten taldeekin proiektu komun bat aurkezten badute.
 - 5.8. Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, proiektu horietatik guztietatik kanpo geldituko da berariaz.
 - 5.9. Ezin izango dira modalitate honetako eskaera batean aurkeztu UPV/EHUko ikertaldean lankidetza proiektuak egiteko laguntzen 2024ko deialdian parte hartu duten ikertaldeak, ezta talde horietako kideak ere.
 - 5.10. 4.1.a. oinarrian jasotako eskaeren kasuan, laguntza hau bateraezina izango da UPV/EHU mugikortasunerako eta ikerketa emaitzak zabaltzeko laguntzen deialdian jasotako nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea sustatzeko III. modalitateko laguntza batekin.

6. oinarria.- LANKIDETZA PROIEKTUEN EZAUGARRIAK.

- 6.1. Proiektuen iraupena **bi urtekoa** izango da.
- 6.2. Eskatutako laguntza alderdi hauek finantzatzeko erabili ahalko da:
 - a) Langileen kontratazioa.
 - b) Ohiko azpiegitura zientifikoa. UPV/EHUren Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez erosi beharko da nahitaez. Ezin izango da azpiegitura zientifikorik erosi proiektuaren amaiera datarako sei hilabete baino gutxiago falta direnean. Epe hori igarotakoan, kendu egingo da epigrafe honi esleitutako finantzaketa (erabili ez

dena).

- c) Material suntsigarria. Proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada. Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, baita ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.
 - d) Bidaiak eta dietak. Ikerlanaren harira egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak. Atal honetan sartutako zenbatekoek, baita gehienez lau aste arteko egonaldi laburrenek ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskaeran. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarriketak, etab), joan-etorrien kostua ere bidaien eta dieten atalean sartuko da. Halaber, lankidetzaz horretatik eratorritako emaitzak kongresuetan aurkezteko izen-emateen kuotak ere ordaindu ahalko dira, baita Europako proposamenak prestatzeko egin beharreko joan etorriak ere.
 - e) Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Besteak beste, atal honetan sartu ahal izango dira honako hauek: ekipamenduen konpontze eta mantentze lanak, UPV/EHUren Zerbitzu Zentralen mantentze kontratuetan sartzen ez direnak; proiektuari atxikitako kideen aseguru estaldura, UPV/EHUn lan egiteko istripu estaldurarik ez dutenean; edo kanpoko zerbitzuen kontratazioa. Era berean, aholkularitza gastuak ere sartu ahal izango dira, diruz lagundutako beste ekintza batzuetan jaso ez diren Europako proposamenak prestatzekoak.
- 6.3. Gehienez ere, 6.000 euro eskatu ahal izango dira ikertalde bakoitzeko, eskaeran parte hartzen duen taldeko pertsona kopurua edozein dela ere; eta 30.000 euro eskatu ahalko dira proiektu bakoitzeko.
- 6.4. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua, osorik edo zati batean.

7. oinarria.- LANKIDETZA PROIEKTUEN ESKAERAK EBALUATZEA.

7.1. Jarraian ageri den taulan zehaztuta daude modalitate honetan aurkezten diren eskabideen ebaluazio irizpideak.

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. Proposamenaren kalitate zientifiko-teknologikoa: - Proposamenaren interesa, Europar Batasunaren esparru programari edo Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planari dagokionez (10 puntu). - Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna (10 puntu). - Metodologiaren egokitasuna (10 puntu).	30
2. Ikertalde eskatzaileen kalitate zientifiko tekniko: Aitortza eman dien deialdiko ebaluazioan ikertalde eskatzaileek lortu duten batez besteko puntuazioa (beharrezkoa izanez gero, zuzenketa faktore bat erabiliko da deialdietan lortutako puntuazioak arautzeko).	30
3. Proiektuaren bideragarritasuna: - Lanerako plan bideragarri eta posibilista (10 puntu). - Europako proiektuaren proposamena: bazkideak bilatzeko eta Europar Batasunari proiektua proposatzeko plana. LTC, JRL edo UII/IIGP jardueren proposamena: Proiektua dagokion erakundearen strategiara egokitzea (10 puntu). Europako proiektu proposamenen kasuan, irizpide honetan lortutako puntuazioa 1,2 faktorearekin biderkatuko da osasun arloko proposamenak direnean; guztizkoak ezin izango du inola ere gainditu atalari eman dakiokkeen 20 puntuko gehienekoa.	20
4. Proposamenaren diziplinartekotasun maila eta inplikaturako taldeen kopurua: 5 puntu emango dira parte hartzen duen ikertalde bakoitzeko, nahitaezko gutxienekotik aurrera, eta 5 puntu gehigarri taldeak diziplina desberdinetakoak badira (20 puntu gehienez). Puntuak = (talde kop. -2) x 5 + GM x 5 Non GM izan daitekeen 1 edo 0, kontuan izanik ikertaldeak diziplina	20

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
desberdinetakoak diren ala ez.	
BALORAZIO OROKORRA	100

- 7.2. Horrez gain, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeretan, 2 puntu gehituko zaizkio ebaluazioaren azken emaitzari.
- 7.3. Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da 50 puntutik gorakoa izatea 1., 3. eta 3. irizpideen puntuazioen batura.
- 7.4. Ikerketa Errektoreordetzak ofizioz baloratuko ditu 2. eta 4. irizpideak, baita 3. irizpidean aipatutako oharrean adierazitako zuzenketa faktorea eta IN emakumea izatearen ondoriozko gehikuntza ere.
- 7.5. 1. eta 3. irizpideen balorazioa IGBBaren bidez egingo da.

2. MODALITATEA. IKERTZAILE HASIBERRIEK GIDATUTAKO IKERKETA PROIEKTUAK.**8. oinarria.- IKERTZAILE HASIBERRIEK GIDATUTAKO IKERKETA PROIEKTUEN XEDEA.**

Deialdiaren modalitate honen helburua da ikertzaile hasiberrien lidergoa sustatzea, ikerketa proiektuetan ikertzaile nagusi izatera iris daitezen eta ikertalde berriak sor daitezen erraztuz; egungo ikertaldeetan ikerketa ildo berriak garatzea edo sendotzea; eta egungo ikertaldeetako langileen lidergo gaitasuna handitzea.

Modalitatearen oinarrizko helburuak honako tipologia hauetan biltzen dira:

1. UPV/EHUn sartu berri diren eta oraindik aitortutako ikertalde batean integratu ez diren kideen ikerketa jarduna abiarazten laguntzea.
2. Ikerketa ildo bat finkatzen laguntzea, ikertalde berri bat sor dadin edo ikertzailea ildo espezifiko bateko lider gisa integratu dadin lehendik dagoen ikertalde batean.
3. Lidergoa babestea, ikertalde batean dauden gazteen artean ikerketa ildo berri bat sortzeko.

9. oinarria.- IKERTZAILE HASIBERRIEK GIDATUTAKO PROIEKTUAK.

- 9.1. Modalitate honetan, bost jakintza arlotako ikerketa proiektuak sartzen dira: zientziak, ingeniariak eta arkitektura, osasun zientziak, gizarte eta lege zientziak, eta artea eta giza zientziak. Modalitate horren barruan, honako proiektu mota hauek daude:
 - a) Funtsezko ikerketa proiektu esperimentalak eta/edo teorikoak, jakintza zientifikoaren eta kalitate egiaztatuko ikerketaren sorrera eta aurrerapen esanguratsua sustatzera bideratuak.
 - b) Ikerketa proiektuak eta horien aplikazioa gerora egingo diren garapen teknologikoan eta esperimentazioan, betiere gizartearen erronka handiei lotutako arazoak konpontzera bideratuta.
- 9.2. Bereziki bultzatuko dira, baztertzailerik ez den arren, diziplina arteko proiektuak, gizarte intereseko erronkei heldu ahal izateko, bereziki GJHen berezko agendarekin (EHUagenda 2030) eta Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean txertatutako RIS3 Euskadi Estrategiarekin lotuta.
- 9.3. Laguntza horietako bat genero ikuspegiaren eta trans errealitatearen ikerketa sustatzen duen proiektu baterako gordeko da, 5. GJHari lotuta, baldin eta gai horri buruzko eskaerak badaude eta 12.4 oinarrian ezarritako gutxieneko puntuazio-atalasea

gainditzten badute. Plaza hori hutsik geratzen bada, kupo orokorrera gehituko da.

9.4. Deialdiko modalitate honi 275.000 euro esleituko zaizkio.

9.5. Eskaerak ingelesez idatzi beharko dira.

10. oinarria.- IKERTALDE ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

10.1. Ikertaldean IN bakar bat egongo da, eta hari bilduko zaizkio aurkezten den proiektua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren ikertzaileak.

10.2. Ikertzaile nagusiak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Doktore izatea.
- b) UPV/EHUrekin kontratu harremana izatea, arduraldi osoan.
- c) Deialdia argitaratzen den unean gehienez 40 urte izatea, eta honako kasu hauetakoren batean egotea:
 - i. Aldez aurretik proiektu, kontratu, zuzeneko dirulaguntza edo ikertalde batean IN gisa jardun ez izana.
 - ii. Proiektu, kontratu, zuzeneko dirulaguntza, talde edo ikerketako IN izan bada, ikertzaile nagusi bakarra izan ez izana; eta IN edo IN kide gisa parte hartu duen ekintza horietan lortutako finantzaketa metatua 100.000 eurotik gorakoa ez izatea.
 - iii. Bakarka ikertzeko proiektu, kontratu edo zuzeneko dirulaguntza baten IN izan bada, ekintza horien IN gisa lortutako finantzaketa metatua 20.000 eurotatik gorakoa ez izatea.

Aurreko kasuetan, ez dira ikerketa proiektutzat hartuko giza baliabideen deialdi baten esparruan jasotako laguntzak (Ramón y Cajal, Juan de la Cierva, Ikerbasque eta antzekoak), ezta mugikortasun laguntzak ere.

d) Kolektibo hauetako bateko kide izatea:

- i. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
- ii. Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak; UPV/EHUri atxikitako Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpostu iraunkor batean finkatzeko zain dauden kontratudun irakasleak.
- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluaaren modalitatean kontratatutako langileak (Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko kontratua), baldin eta indarrean dagoen kontratuak

barne hartzen badu laguntza hori gauzatzeko epea gutxienez.

- 10.3. Behar bezala egiaztatutako amatasun, aitatasun, adopzio edo harrera aldiak eta seme-alabak zaintzeko eszedentzia aldiak gehienez 40 urtetara arte luzatuko dira, 10.2.c oinarrian ezarritako eskabideak aurkezten diren unean.
- 10.4. Ikertaldea osatzen duten gainerako pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
- a) Kolektibo hauetako bateko kide izatea:
 - i. 10.2 oinarriko d) paragrafoan aipatutakoak.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluaaren modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileak).
 - iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikuluko modalitatean kontratatutako langileak, doktore aurreko prestakuntzan daudenak. Kasu horretan, nahitaezkoa da tesi zuzendaria ere ikertalde eskatzailean sartuta egotea.
 - iv. Unibertsitate ospitaleetako irakaskuntza unitateetako irakasle elkartu doktoreak.
 - v. Bitarteko edo ordezeko lan-kontratadun irakasleak, bi kasuetan lanaldi osoak eta doktoreak, 10.2.d.ii. puntuan sartzen ez direnak.
 - b) UPV/EHUn irakasle-ikertzaile jarduteko kontratu bat izatea, gutxienez laguntza hau gauzatzeko epea barne hartzen duena.
- 10.5. Proiektua gauzatzeari dagokionez bakarrik ebaluatuko da ikertaldea, eta kideen parte hartzea behar bezala justifikatu beharko da memorian.
- 10.6. Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, proiektu horietatik guztietatik kanpo geldituko da berariaz.
- 10.7. Ezin izango dute modalitate honetako eskabide batean parte hartu ez ikertzaile nagusiak, ez ikertaldeko ezein pertsonak, baldin eta 2024ko deialdian ikertzaile hasiberriek gidatutako proiektuen modalitatean finantzaketa lortu badute.

11. oinarria.- IKERTZAILE HASIBERRIEK GIDATUTAKO PROIEKTUEN EZAUGARRIAK.

- 11.1. Ikerketa proiektuen iraupena **bi urtekoa** izango da.
- 11.2. Eskatutako laguntza alderdi hauek finantzatzeko erabili ahalko da:
- a) Langileen kontratazioa.

- b) Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez erosi beharko dira nahitaez, eta zenbatekoa ezin izango da, inola ere, guztira 3.000 eurotik gorakoa izan.

Ezin izango da azpiegitura zientifikorik erosi proiektuaren amaiera datarako sei hilabete baino gutxiago falta direnean. Epe hori igarotakoan, kendu egingo da epigrafe honi esleitutako finantzaketa (erabili ez dena).

Material suntsigarria. Proiekturako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada. Atal honen barnean sartuko dira ekipamendu zientifikoaren funtzionamendutik sortutako gastu guztiak, baita ikerketako zerbitzu nagusiak (SGIker) erabiltzeak sortutakoak ere.

- c) Bidaiak eta dietak. Ikerlanaren harira egin beharreko bidaiak edo ikerketa proiektuaren emaitzak batzar zientifikoetan azaltzeko taldekideek egin beharreko joan-etorriak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek, baita gehienez lau aste arteko egonaldi laburrenek ere, lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskaeran. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarriketak, etab), joan-etorrien kostua ere bidaien eta dieten atalean sartuko da. Halaber, proiektu horretatik eratorritako emaitzak kongresuetan aurkezteko izen-emateen kuotak ere ordaindu ahalko dira.

- d) Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak. Besteak beste, atal honetan sartu ahal izango dira honako hauek: ekipamenduen konpontze eta mantentze lanak, UPV/EHUren Zerbitzu Zentralen mantentze kontratuetan sartzen ez direnak; proiektuari atxikitako kideen aseguru estaldura, UPV/EHUn lan egiteko istripu estaldurarik ez dutenean; edo kanpoko zerbitzuen kontratazioa.

11.4. Gehien dela, 40.000 euro eskatu ahal izango dira proiektu bakoitzeko, eskaeran parte hartzen duen taldeko pertsona kopurua edozein dela ere.

11.5. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua, osorik edo zati batean.

12. oinarria.- IKERTZAILE HASIBERRIEK GIDATUTAKO PROIEKTUEN ESKAERAK EBALUATZEA.

12.1. Modalitate honetan aurkezten diren eskabideen ebaluazio irizpideak hurrengo taulan zehazten dira.

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. Eskaeran ageri den ikertzaile nagusiaren historial zientifikoa eta beronek proposatutako ikerketa jardueraren gaiarekin lotuta egindako ekarpen berriak.	15
2. Aurkeztutako ikerketa proiektuaren diziplinartekotasuna, planteatutako helburuak lortzeko unean arlo desberdinetako ikertzaileei dagokien inplikazioa behar bezala justifikatuta.	10
3. Proiektuaren kalitate zientifiko eta teknikoak: • Helburuen berritasuna eta garrantzia, eskaerari dagokion arloari lotutako jakintzari dagokionez (20 puntu). • Interes sozialeko erronkekin bat etortzea, bereziki honako hauekin lotuta daudenekin: GJHen agenda, EHUagenda 2030 eta RIS3 Euskadi estrategia, Euskadi 2030 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean txertatutakoa. Bereziki, proposatutako ikerketan genero ikuspegia nola txertatzen den ebaluatuko da (10 puntu).	30
4. Proposamenaren bideragarritasuna: ikerketa diseinatzea, metodologia eta lanerako plana planteatutako helburuetara egokitzea.	30
5. Aurreikusitako emaitzek (argitalpenak, patenteak, jakintza edo transferentzia teknologikoaren aurrerapena, etab.) nazio mailan zein nazioartean izan dezaketen eragina (zientifikoa, teknologikoa, ekonomikoa, soziala...).	15
BALORAZIO OROKORRA	100

12.2. Horrez gain, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeretan, 2 puntu gehituko zaizkio ebaluazioaren azken emaitzari.

12.3. Ebaluazio irizpideen balorazioa kanpoko ebaluazio agentzia baten bidez egingo da

lehentasunez. Agentzia hori UNIBASQ - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentzia bat izan daiteke. Nolanahi ere, eskaera kopuruak eta aipatutako agentziek ebaluazioa egiteko eskaintzen dituzten epeak kontuan hartuta erabakiko du IGBBk zein den ebaluazio modu egokiena, deialdia 2025. urtea amaitu aurretik egingo dela bermatze aldera.

- 12.4. Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da 50 puntutik gorakoa izatea 1etik 5era bitarteko irizpideen puntuazioen batura.

3. MODALITATEA. HORIZON EUROPE (HE) PROGRAMAKO PROIEKTUETAN LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK.

13. oinarria.- HORIZON EUROPE (HE) PROIEKTUETAN LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN XEDEA.

Deialdi honen helburua da UPV/EHUren parte hartzea eta lidergoa sustatzea Europar Batasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Programa Markoaren (Horizonte Europa) deialdietan, lankidetzatza proiektuen lidergoa eta koordinazioa erraztuko duten politika proaktiboak ezarriz. Helburu nagusien artean daude, halaber, UPV/EHUko ikertzaileek gidatutako nazioarteko partzuergoak sortzen ere laguntzea; UPV/EHUk Horizonte Europa programan koordinatutako proiektuen kopurua handitzea; eta diziplina anitzeko eta mugaz gaindiko bikaintasuneko ikerketa bultzatzea eta sustatzea, betiere, UPV/EHUren jarduera zientifiko eta teknologikoaren nazioartekotzea areagotze aldera.

Hauek dira modalitatearen oinarrizko helburuak:

- UPV/EHUko pertsonalaren lidergoa sustatzea nazioarteko partzuergoen sorreran.
- UPV/EHUk Horizonte Europa esparru programan parte har dezan bultzatzea, UPV/EHUko langileek koordinatutako ikerketa proiektuen bitartez.
- UPV/EHUk Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC, *European Research Council*) laguntza proposamenetan parte har dezan laguntzea.

14. oinarria.- HE PROIEKTUETAN LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZAK.

14.1. Modalitate honetan kategoria hauek sartzen dira:

- a) UPV/EHUko ikertzaileek koordinatutako Horizonte Europa Esparru Programako lankidetzatza proiektuak, baldin eta partzuergoan parte hartzen duten bazkideen kopurua, partzuergoaren edo proiektuaren tamaina eta/edo UPV/EHUk jasotzen duen aurrekontua kontuan hartuta, kudeaketa eta koordinaziorako zailtasun erantsia badakarte, eta euskarri gehigarria behar badute, betiere finantzaketa iturririk edo kudeaketari laguntzeko egiturarik ez badute premia horiek betetzeko.

Proiektuek gauzatze fasean egon behar dute deialdi honetako eskaerak aurkezteko azken egunean, edo, gutxienez, dirulaguntzetarako hitzarmena dagoeneko sinatuta izan behar dute.

- b) Europako Ikerketa Kontseiluari (ERC) aurkeztutako proposamenak, A ebaluazio positiboa jaso dutenak, baina, aurrekontu arrazoiengatik, finantzatu ezin izan direnak. Onargarriak izango dira deialdi honetarako eskabideak aurkezteko azken egunean ebatzitako azken deialdian ebaluazio hori lortu duten proposamenak.

-
- 14.2. Deialdi honen 14.1.a oinarrian zehaztutako kategoriatik kanpo geratzen dira, berariaz, funts nazionalekin (*Co-funded European Partnerships*) soilik finantzatu diren proiektuak, baita dagoeneko kudeaketa eta koordinazio lanetarako aurrekontua duten proiektuak ere.
- 14.3. Deialdi honen 14.1.b oinarrian zehaztutako kategoriatik kanpo geratzen dira, berariaz, beharrian horiek betetzeko beste finantzaketa iturri edo kudeaketa egitura batzuk dituzten proposamenak, hala nola "Europa Excelencia" deialdietako laguntzak edo antzekoak dituztenak.
- 14.4. Deialdiko modalitate honi 75.000 euro esleituko zaizkio, eta zenbateko hori aldatu ahal izango da jasotako eskaeren eta aurrekontu baliabideen arabera.
- 14.5. Eskaerak ingelesez idatzi beharko dira.

15. oinarria.- HE PROIEKTUETAN LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

- 15.1. Eskaeretan, ikertzaile nagusiek baldintza hauek bete beharko dituzte:
- a) Doktore izatea.
 - b) UPV/EHU arduraldi osoz aritzea.
 - c) Kolektibo hauetako bateko kide izatea:
 - i. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHU; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpostu iraunkor batean finkatzeko zain dauden lan kontratudun bitarteko irakasleak.
 - d) Gainera, honako egoera hauetako batean egotea:
 - i. 14.1.a. oinarrian definitutako tipologia duen eta 14.2 oinarrian zehaztutako baldintza betetzen duen lankidetzatza proiektu baten koordinazioaz arduratzea.
 - ii. ERC proposamen bat aurkeztu izana 14.1.b oinarrian deskribatutako egoeran, eta 14.3 oinarrian zehaztutako baldintza betetzea.
- 15.2. Ikertzaile nagusiak kontratu harremana izan beharko du UPV/EHUrekin.
- 15.3. Deialdi honen 14.1.a. oinarrian deskribatutako kategoriarako laguntzen eskaeren kasuan, eskabidean beste ikertzaile batzuk ere sartu ahal izango dira, ikertzaile
-

nagusiaz gain, betiere proiektuaren ikerketa taldearen barruan badaude (ez dira barnean hartzen proiektuaren kargura kontratatutako ikertzaileak) eta kontratuaren iraupenak laguntza hau gauzatzeko aldia barne hartzen badu gutxienez.

- 15.4. Deialdi honen 14.1.b oinarrian deskribatutako kategoriarako laguntza eskaera ikertzaile nagusiak berak egin behar du, talde eskatzaileko beste ezein kideren laguntzarik gabe.
- 15.5. Ikertaldeko ezein kidek ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi eskaeratan edo gehiagotan parte hartuko balu, horietatik guztietatik kanpo geldituko da berariaz.
- 15.6. Ezin izango da eskaera bati lotutako taldean parte hartu (ez ikertzaile nagusi gisa, ez ikertaldeko kide gisa), baldin eta indarreko deialdian modalitate honekin lotura duen laguntza bat jaso bada aurretiaz.

16. oinarria.- HE PROIEKTUETAN LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN EZAUGARRIAK.

- 16.1. Laguntza gauzatzeko epea **bi urtekoa** izango da.
- 16.2. Eskatutako laguntza alderdi hauek finantzatzeko erabili ahalko da:
 - a) Langileen kontratazioa.
 - b) Material suntsigarria. Proiektuaren koordinazio jardueretarako beharrezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada.
 - c) Proiektuaren jarduerak koordinatzeko egin behar diren bidaiak eta dietak.
 - d) Aurreko partidetan jaso ez diren kontzeptuei lotutako beste gastu batzuk, behar bezala justifikatuta, baldin eta eskabidearen oinarri den proiektuaren koordinazioarekin zuzenean lotuta badaude eta finantzatutako beste ekintza batzuetan sartuta ez badaude.
- 16.3. Modalitate honetako proiektu bakoitzean 20.000 euroko dirulaguntza eskatu ahal izango da gehienez, 14.1.a oinarrian deskribatutako kategoriako eskaeretarako; eta 10.000 eurokoa 14.1.b oinarrian deskribatutako kategoriako eskaeretarako.
- 16.4. Salbuespen gisa, ikertzaile nagusi bera 15.1.d.i. oinarrian deskribatutako egoeran balego bi proiektu edo gehiagotan aldi berean, edo 15.1.d.i. eta 15.1.d.ii. oinarrietan deskribatutako egoeretan balego aldi berean, eman daitekeen gehieneko dirulaguntza (16.3 oinarrian jasotakoa) handitzeko aukera aztertu daiteke, betiere eskura dagoen aurrekontuaren arabera.

Aurreko paragrafoan deskribatutako kasuetako edozeinetan, ikertzaile nagusiak eskaera bakarra egin beharko du, aldi berean gertatzen ari diren inguruabarrak adierazita.

- 16.5. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua, osorik edo zati batean.
- 16.6. Laguntza hau bateraezina izango da taldeen arteko lankidetzaz proiektuen I. modalitateari lotutako dirulaguntzarekin.

17. oinarria.- HE PROIEKTUETAN LIDERGOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.

- 17.1. Jarraian ageri den taulan jasota daude deialdi honen 14.1.a. oinarrian deskribatutako modalitate honetan aurkeztu diren eskaerak (proiektu koordinatuak) ebaluatzeke irizpideak:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. Partzuergoaren tamaina. • bazkide edo gehiago (60 puntu) • 7 eta 14 bazkide artean (40 puntu) • 6 bazkide arte (10 puntu)	60
2. Partzuergoaren aurrekontu osoa. • 6.000.000 euro baino gehiago (20 puntu) • 3.000.000 eta 6.000.000 euro bitartean (12 puntu) • 3.000.000 euro baino gutxiago (8 puntu)	20
3. UPV/EHUn gauzatutako aurrekontua. • 500.000 euro baino gehiago (20 puntu) • 300.000 eta 500.000 euro bitartean (12 puntu) • 300.000 euro baino gutxiago (8 puntu)	20
BALORAZIO OROKORRA	100

- 17.2. Ikertzaile nagusia 15.1.d.i. oinarrian deskribatutako egoeran badago aldi berean bi proiektu edo gehiagorako, 17.1 oinarrian deskribatutako irizpideak aplikatuko dira puntuazio altuagoa lortzen duen proiekturako, eta, gainera, lortutako puntuazioa 1,2

zuzenketa faktorearekin biderkatuko da.

- 17.3. Ikertzaile nagusia 15.1.d.i. eta 15.1.d.ii. oinarrietan deskribatutako egoeretan badago aldi berean, 17.1 oinarrian deskribatutako irizpideak aplikatu ondoren lortutako emaitza 1,2 zuzenketa faktorearekin biderkatuko da.
- 17.4. Ikertzaile nagusia, gainera, Horizonte Europa programaren proiektu osagarrien koordinatzailea bada, nahiz eta proiektu horiek 14.1.a oinarrian ezarritako baldintzak bete ez, lortutako puntuazioa 1,1 puntuazio faktorearekin biderkatuko da, betiere, proiektua aktibo badago laguntza gauzatu behar deneko aldiaren erdian gutxienez.
- 17.5. Ikerketa Errektoreordetzak ofizioz baloratuko ditu 17.1. oinarrian deskribatutako irizpideak.
- 17.5. Modalitate honetan, deialdi honen 14.1.b oinarrian deskribatutako kategoriarako aurkezten diren eskaerak ebaluatzeko, Europako Batzordeak proposatu eta IGBBk onartutako iruzkinak hartuko dira kontuan.

4. MODALITATEA. LATINOAMERIKAREKIN EGITEKO IKERKETA PROIEKTUAK.

18. oinarria.- LATINOAMERIKAREKIN EGITEKO PROIEKTUEN XEDEA.

Deialdiaren modalitate honen xedea da 2025 eta 2026 urteetan zehar Latinoamerikarekin egingo diren ikerketa harremanak sustatzeko laguntzak ematea.

Laguntzak "hazi finantzazio" gisa sailkatzen dira, eta horien helburua da parte hartuko duten ikertaldeei laguntza ematea, beste laguntza edo funts gehigarri batzuk eskuratu eta lor ditzaten, Latinoamerikako unibertsitateekin ikerketa harremanak sustatze eta sendotze aldera.

19. oinarria.- LATINOAMERIKAREKIN EGITEKO PROIEKTUAK.

19.1. Proiektuen tipologia bikoitza proposatzen da:

- a) Ikerketa sustatzeko proiektuak: Ikerketa sustatzeko proiektuak eta lankidetzan egindako ikerketa proiektuak bereiz proposa daitezke, zein bere aldetik. Ikerketa sustatzen duten ekintza edo ekimenak izan beharko dituzte oinarri, eta horien helburua izan beharko da ikertzaileei beren ikerketaren emaitzak garatu eta zabaltzeko aukera emango dieten tresnak eskaintzea.
- b) Elkarlanean egindako ikerketa proiektuak: Elkarlanean egindako ikerketa proiektuek lehiakortasunari lotutako arazo eta erronkak konpontzera bideratuta egon behar dute, eta Nazio Batuetako estatu kideek onartutako GJHei erantzun bateratua emateko gai izan behar dute, betiere, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren eta Euskadi 2030 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean barne hartutako RIS3 Euskadi Estrategiaren esparruan.

19.2. Bi proiektu tipologia horien helburua da ikerketa bateratua bultzatzea, batez ere jakintzaren bi alderdi hauetan: osasuna eta hezkuntza. Hala ere, UPV/EHUren Graduondoko Sare Latinoamerikarraren eskaintza akademikoan koka daitekeen edozein jakintza ardatz ere finantzatzen da.

19.3. Ikerketa proiektu horiek problematika zehatz batean zentratuta egon daitezke, edo izaera zabalagoa izan dezakete. Lehentasuna emango zaie diziplinarteko eta diziplinaz gaindiko ikuspegia duten proiektuei eta gizartean eragin handiena izan dezaketenei.

19.4. Lehentasuna emango zaie eskatutako edo abian dauden proiektuen osagarri izan daitezkeen ikerketa proiektuei, baita tokiko, estatuko eta, batez ere, nazioarteko beste deialdi batzuetara begirako proiektzioa duten proiektuei ere. Deialdi honen laguntza programa horiek bultzatzeko eragilea izango da.

19.5. Deialdiko modalitate honi 70.000 euro esleituko zaizkio gehienez.

20. oinarria.- LATINOAMERIKAREKIN EGITEKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

20.1. Laguntzak UPV/EHUko ikertzaileak buru dituzten ikertaldeei bideratuta daude, baldin eta ikertaldean, gutxien dela, Latinoamerikako unibertsitate bateko ikertzaileek parte hartzen badute. Lehentasuna emango zaie Latinoamerikako Graduondoko Sarea osatzen duten Latinoamerikako unibertsitateetako pertsonak barne hartzen dituzten proiektuei, alegia, lankidetza hitzarmen espezifikoak dutenei. Zerrenda esteka honetan dago ikusgai.

20.2. Proiektu bakoitzean, bi tipologietako edozeinetan, gutxienez Latinoamerikako Unibertsitate batek hartu behar du parte, baina positiboki baloratuko da Latinoamerikako unibertsitate bateko baino gehiagotako ikertzaileen lankidetza.

20.3. Ikertzaile nagusiak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Doktore izatea.
- b) UPV/EHUrekin kontratu harremana izatea, arduraldi osoan.
- c) Kolektibo hauetako bateko kide izatea:
 - i. UPV/EHUri modu iraunkorren lotutako lan kontratuduna edo funtzionarioa.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak; UPV/EHUk diharduten Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren eta lanpostu iraunkor batean finkatzeko akreditazioa duten lan kontratudun bitarteko irakasleak.

20.4. Proiektuek, justifikatuta badago, bigarren ikertzaile nagusi bat izan ahalko dute. Ikertzaile nagusi horrek 20.3 oinarriko baldintzak ere bete beharko ditu, eta ikertzaile nagusi gisa jardungo du, lehendabiziko hura ez dagoenean.

20.5. Ikerketa taldea osatzen duten gainerako pertsonen baldintza hauek bete beharko dituzte:

UPV/EHUko ikertzaileen kasuan:

- o Kolektibo hauetako bateko kide izatea:
 - i. 20.3.c atalean zerrendatuta daudenak.
 - ii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluaaren modalitatean kontratatutako langileak (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren

Espainiako Sistemaren sartzeko kontratua), baldin eta indarrean dagoen kontratuaren iraupenak laguntza hau gauzatzeko epea barne hartzen badu gutxienez.

- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikulua modalitatean UPV/EHU kontratatutako doktoratu aurreko langileak. Kasu horretan, beharrezkoa da tesiaren zuzendaria ere ikertalde eskatzaileko kide izatea.
- iv. Unibertsitate ospitaleetako irakaskuntza unitateetako irakasle elkartu doktoreak.
- v. Bitarteko edo ordezkari lan-kontratadun irakasleak, bi kasuetan lanaldi osoak eta doktoreak, 20.3c.ii puntuan jasota ez daudenak.
- o Irakasle-ikertzaile kontratu bat izatea, gutxienez laguntza hau gauzatzeko aldia barne hartzen duena.

Latinoamerikako unibertsitate bateko ikertzaileen kasuan, dagokien unibertsitatearekin duten lotura justifikatu beharko dute. Horretarako, proiektuan parte hartzeko baimena aurkeztu beharko du, jatorrizko erakundeko legezko ordezkariak sinatutakoa.

Proiektuan inola ere ezingo du parte hartu UPV/EHUtik kanpokoa den eta Latinoamerikako unibertsitate batekoa ez den langilerik.

20.6. Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskaera batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartuko balu, proiektu horietatik guztietatik kanpo geratuko da berariaz.

20.7. Kontuan hartuko dira emakumeek integratutako eta/edo gidatutako proiektuak. Balorazio hori "Lantaldearen kalitatea, ibilbidea eta egokitasunari" buruzko ebaluazio irizpidean islatuko da.

21. oinarria.- LATINOAMERIKAREKIN EGITEKO PROIEKTUEN EZAUGARRIAK.

21.1. Deialdiaren modalitate honen bidez diruz lagun daitezkeen gastuak honako hauek dira, betiere proiektuaren garapenarekin lotura zuzena badute:

- a) Material suntsikorra.
- b) Ikertzaileen mugikortasunerako bidaia eta egonaldi gastuak.
- c) Kongresuetara joateko gastuak.
- d) Argitalpen zientifikoak.
- e) Jardunaldiak eta *workshop*-ak antolatzea.
- f) Proiektuaren gauzatzearekin zerikusia daukaten bestelako gastuak.

Inola ere ez da finantzatuko material inbentariagarria, ezta proiektu hauen kontura kontratatutako ikertzaileen kontratazio gastuak ere.

- 21.2. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua, osorik edo zati batean. Deialdi hau ebazten den egunetik aurrera egindako gastuak baino ezin izango dira barne hartu dirulaguntzaren aurrekontuan.
- 21.3. Finantzatzeko modukoa den ikerketa proiektu bakoitzari dagokion banakako zenbatekoa zehazteko, kasu bakoitzean, kontuan hartuko da jarduketaren benetako kostu finantzarria, helburuen, beharren eta eskura dagoen aurrekontuaren arabera. Nolanahi ere, ekintza bakoitzeko finantzatu daitekeen gehieneko aurrekontua 10.000 eurokoa izango da.

22. oinarria.- LATINOAMERIKAREKIN EGITEKO PROIEKTUEN ESKAERAK EBALUATZEA.

- 22.1. Modalitate honetako eskabideen ebaluazioa fase bakarrean egingo da, eta "*ad hoc*" eratutako balorazio batzorde bakar batek egingo du. Batzorde hori UPV/EHUko kide hauek osatuko dute, hain zuzen: Ikerketa errektoreordeak edo hark bere ordezkiz izendatutako pertsonak; Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako errektoreordeak edo hark bere ordezkiz izendatutako pertsonak; eta Graduondoko Latinoamerikako Sareko zuzendariak.

Balorazio batzorde hori arduratuko da aurkeztutako eskabideak aztertzeaz, ebaluatzeaz eta balioesteaz.

- 22.2. Modalitate honetan aurkezten diren eskaerak ebaluatzeko irizpideak honako taula honetan daude zehaztuta.

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. Proposamenaren kalitate zientifiko teknikoa, garrantzia eta bideragarritasuna.	40
2. Lantaldearen kalitatea, ibilbidea eta egokitasuna. Irizpide horretan, emakumeen lidergoari eta genero berdintasunari dagokionez, kontuan hartuko da bi sexuetako kideen ehunekoa % 40 edo handiagoa izatea. Era berean, kontuan hartuko da ikertzaile nagusietako bat gutxienez emakumea izatea. Bai genero berdintasunari, bai emakumeen lidergoari buruzko irizpideengatik 10	30

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
puntu eman ahalko dira, gehienez ere.	
3. Aurrekontua lanerako planera egokitzea, baterako finantzaketaren eskema eta beste laguntza batzuen palanka efektuaren proiektzioa.	10
4. Proposamenaren diziplinartekotasun maila eta tartean nahasitako unibertsiteen kopurua.	20
BALORAZIO OROKORRA	100

- 22.3. Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratuko direla bermatzeko.
- 22.4. Balorazio batzordeak oinarri honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako eskaera eta agiriak, eta proposamen bakoitzari 100 puntu eman ahalko dizkio, gehienez ere.
- 22.5. Batzordeak aukera izango du gutxieneko puntuazio bat ezartzeko; hala eginez gero, gutxieneko puntuazio hori lortzen ez duten eskabideek ez dute laguntzak banatzeko prozesuan parte hartuko, eta, ondorioz, ez dira laguntzen xede izango.
- 22.6. Balorazio batzordearen erabakiak irmoak izango dira, eta aho batez edo gehiengoz lortu ahal izango dira.

5. MODALITATEA. INPAKTU SOZIALA NEURTZEKO PROIEKTUAK.

23. oinarria.- INPAKTU SOZIALA NEURTZEKO LAGUNTZEN XEDEA.

UPV/EHUko Estatutuen arabera, “[unibertsitateak] euskal gizartearen premiei erantzungo die” (1. art.), eta “Hauek dira UPV/EHUren helburuak: (...) parte hartzea (...) euskal gizartearen (...) ongizatean” (4. art.). Gure gizartearen ongizatea bultzatzeari deitzen diogu inpaktu soziala edukitzea. UPV/EHUko ikertaldeek sortutako jakintza eremu akademikotik kanpo inplementatzeak eragindako inpaktu soziala.

Hauek dira modalitate honen helburu zehatzak:

1. Identifikatzea gure gizartearen edo haren zati baten ongizatea zuzenean edo zeharka (baina egiaztatzeko moduan) bultzatu duten ekarpenak, UPV/EHUko ikerketa proiektuei lotutako jakintza bildu, sortu edo aplikatzearen ondorioz eginak.
2. Ikertaldeei baliabideak ematea ebidentziak bil ditzaten beren proiektu edo argitalpenetan garatutako jakintza kanpoan (eremu ez akademikoetan) erabili izanaren inpaktu sozialaren inguruan.
3. Unibertsitatetik kanpoko eragileak inplikatzeko UPV/EHUK gizartearen ongizatearen alde egiten duen ekarpena neurtzeko adierazleak identifika ditzaten, eta parte har dezaten UPV/EHUren ikerketatik sortutako jakintzaren inpaktu sozial horren neurketan.

24. oinarria. INPAKTU SOZIALA NEURTZEKO PROIEKTUAK.

24.1. Modalitate honetako proiektuen helburua izango da ebidentziak biltzea UPV/EHUUn egindako ikerketen jakintzaren inplementazioaren inpaktu sozialaren inguruan. Bost jakintza adar nagusietako proiektuak izan ahalko dira.

24.2 Ezinbestekoa da proiektuan gutxienez unibertsitateko ikertalde batek eta kanpoko eragile batek parte hartzea (ekonomia erakunde batek, eragile sozial batek, administrazio publiko batek, etab. Modalitate honetan ez da beharrezkoa kanpoko eragileek gastuen portzentajerik finantzatzea, baina bai laguntzea, alde batetik, definitzen zer den UPV/EHUK ekarpena egitea gizartearen ongizaterako, eta, bestetik, inpaktu sozial horren ebidentziak biltzen.

24.3 Ezin izango da dirulaguntzarik eskatu deialdi hau argitaratzen den datan dagoeneko eginda dagoen inpaktu sozialaren ebidentzien bilketa baterako.

24.4 Deialdiko modalitate honi 100.000 euro esleituko zaizkio.

24.5 Proposamenak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzi ahal izango dira.

24.6 Modalitate honen lehen edizio honetan proiektuak hamabi hilabete iraungo du eta proiektu bakoitzari gehienez 20.000 esleituko zaizkio. Kopuru hori 27.5 y 27.6 oinarrien arabera handitu ahal izango da.

25. oinarria.- IKERTALDE ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

UPV/EHUko TALDEA

Ikertaldeetako kideek 25.1 atalean UPV/EHUrekiko loturari buruz aipatzen diren baldintzetako bat bete beharko dute. Horretaz gain, 25.2 atalean taldeen osaeraz ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte taldeek:

25.1 UPV/EHUrekiko loturari dagozkion baldintzak:

- a. UPV/EHUko funtzionario iraunkorrak edo lan kontratudun langile finkoak izatea; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako kontratupeko ikertzaileak UPV/EHUn; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak edo irakasle laguntzaile doktoreak.
- b. Langile ez-iraunkorrak izanik, UPV/EHUn kontratatuta egotea; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. artikularen bidez (doktorego aurreko kontratuak) edo lege bereko 22. artikularen bidez (Zientzia eta Teknologiarekin Espainiako Sistemara sartzeko kontratua). Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendaria ere eskaria aurkezten duen taldeko kidea izan beharko da.
- c. Ikerketarako lankide akademikoa izatea, unibertsitateko arautegian zehaztutako prozeduren arabera.

Iraunkorrak ez diren langileen kasuan, aipatutako edozein kolektibotakoak direla ere, UPV/EHUrekin duten lotura edo kontratua 2026ko abenduaren 31ra arte egon beharko da indarrean gutxienez. Salbuespen gisa, kontratua 2026ko abenduaren 31 baino lehen amaitzekoa bada, pertsona horrekin data horretara arteko lotura mantentzeko konpromisoa aurkeztu ahal izango du kontratuaren arduradunak, betiere bateragarria bada Lan Erreformatarako, Enpleguaren Egonkortasuna Bermatzeko eta Lan Merkatua Eraldatzeko Premiazko Neurriei buruzko Errege Lege-dekretuarekin (33/2021 Errege Lege-dekretua, abenduaren 28koa).

25.2 Ikertaldearen osaerari dagozkion baldintzak:

- a. Eskaria egiten duen ikertaldean gutxienez hiru doktore egongo dira, denak ere 25.1a atalean aipatutako kolektiboren batekoak.
- b. Eskaria koordinatzen duen ikertzaile nagusia 25.1a atalean aipatutako kolektiboren batekoa izan beharko da, doktorea eta arduraldi osoko UPV/EHUko langilea.

- c. Ikertaldeek bigarren ikertzaile nagusi bat izan ahalko dute, lehenengoa ez badago hura ordezkatzeko. Bigarren ikertzaile nagusiak ere bete beharko ditu 25.1.a atalean aipatutako baldintzak.
- d. Ikertzaile nagusietako bat gutxienez UPV/EHUko langilea izan beharko da, eta bera arduratuko da proiektuaren kudeaketa administratiboari dagozkion zereginez, laguntza esleituz gero. Proiektuaren kudeaketa administratiboa bera UPV/EHUko langilea den ikertzaile nagusiaren unitateak (sailak, institutuak edo parekoak) egingo du.

25.3 Eskari bat baino gehiago aldi berean aurkeztea: Ikertaldeko ezein kidek (ezta ikertzaile nagusiak ere) ezin izango du aldi berean parte hartu modalitate honetako eskari batean baino gehiagotan. Ikertzaile batek aldi berean deialdi honetako bi proiektutan edo gehiagotan parte hartzen badu, horietatik guztietatik kanpo geldituko da berariaz.

KANPO ERAKUNDEETAKO IKERTZAILE LAGUNTZAILEAK

25.4 Proiektuan parte hartzen duen kanpo erakundearen plantillako pertsona bat gutxienez egon beharko da ikertaldean. Komeni da pertsona horrek edo horiek proiektuaren gaiari lotutako esperientzia edukitzea.

26. oinarria.- INPAKTU SOZIALA NEURTZEKO PROIEKTUEN EZAUGARRIAK.

26.1. Proiektuek honako hauek barne hartu beharko dituzte:

- a) Inpaktu soziala neurtzeko metodologia argi bat, gaiaren, haren inplementazioaren eta espero diren emaitzen arabera.
- b) Proposamenen barne hartu behar dira inpaktu sozialari lotuta erabiliko diren adierazleak; eta, adierazle horiek oraindik eduki ezean, horiek ezartzeko erabiliko den metodologia aurkeztu beharko da.
- c) Ebidentziak bildu, laburtu eta aztertzeko plan bat, kanpoko erakundeen parte hartze zuzenaz baliatuko dena.
- d) Aurreikuspenen arabera, proiektua bukatutakoan entregatuko diren gaien xehetasunak, zeinak erabili ahalko baitira UPV/EHUn inpaktuaren kultura sustatzeko.
- e) Adierazgarria balitz, datu bilketan eta/edo proiektuaren garapenean genero ikuspegia nola txertatuko den argitzen duen azalpena.
- f) Datuak kudeatzeko plana, indarreko legeriaren arabera datuen bilketari buruzko alderdi etikoak kontuan hartuta.

26.2. Proiektuen iraupena urtebetekoa izango da.

26.3. Eskatutako laguntza alderdi hauek finantzatzeko erabili ahalko da:

- a) Langileen kontratazioa.
- b) Ohiko azpiegitura zientifikoa eta ekipamendu informatikoa. UPV/EHUko Kontratazio eta Erosketa Zerbitzuaren bidez erosi beharko dira nahitaez, eta zenbatekoa ezin izango da, inola ere, guztira 2.000 eurotik gorakoa izan.

Ezin izango da azpiegitura zientifikorik eta ekipamendurik erosi proiektuaren amaiera datarako sei hilabete baino gutxiago falta direnean.

- c) Material suntsikorra.
- d) Proiektuaren jarduerak koordinatzeko egin behar diren bidaiak eta dietak.

Atal honetan sartutako zenbatekoek lotura zuzena izan behar dute proiektuaren helburuekin, eta behar bezala egiaztatuta eta zenbatespen nahikoaz ageri beharko dira eskaeran. Ikertaldeak landa lana egin behar duenean (inkestak, elkarrizketak, etab.), joan-etorrien kostua ere bidaien eta dieten atalean sartuko da.

- e) Beste gastu batzuk, aurreko partidetan aipatu ez diren kontzeptuei dagozkienak eta egoki justifikatu beharko direnak.

26.3. Laguntzen bidez finantzatu ahal izango da aurkeztutako proposamenetan eskatutako aurrekontua, osorik edo zati batean.

27. oinarria.- INPAKTU SOZIALA NEURTZEKO ESKAERAK EBALUATZEA.

27.1. Modalitate honetan aurkezten diren eskaerak ebaluatzeako irizpideak honako taula honetan daude zehaztuta:

IRIZPIDEAK	PUNTUAK
1. Ebaluatuko den gaiaren garrantzia eta inpaktu soziala. • Proiektua inpaktu sozialaren lau esfera nagusietako batean kokatzea (-Pertsonak, -Oparotasuna, -Planeta, -Bakea, justizia eta identitatea), eta kasu bakoitzean egokiak diren Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta egotea, edota ongizate kolektiboa definitu eta lortzeko onartu den beste esparru batekin (proiektuaren proposamenak hala planteatzen badu). • UPV/EHUK sortutako jakintzaz baliatuko diren interes taldeak identifikatzea. • Zein inpaktu sozial lortu nahi den.	20
2. Proposamenaren kalitate eta diseinu zientifiko-teknikoa. Inpaktu sozialaren ebidentziak biltzeko proposatutako metodologia eta lanerako plana. • Erabiliko diren inpaktu sozialeko adierazleen zehaztasun maila eta tipologia. • Adierazleak ezartzeko erabiliko den metodologiaren azalpena, baldin eta oraindik adierazlerik ezarrita ez badago; baita inpaktu sozialaren ebidentziak biltzeko erabiliko den metodologiaren azalpena ere. • Aurreikuspenen arabera, entregatuko diren gaiak.	30
3. Lantaldearen osaera eta esperientzia: • Ikertzaileen Curriculum. • Ikertaldeak aurretiaz eragin duen inpaktu sozialaren ebidentziak. • Ikertaldea eta lantaldea proposatutako helburuetara eta metodologiara egokitzea.	20
4. Proiektuaren bideragarritasuna eta kanpo erakundeen inplikazioa. • Kanpo erakundearekin komunikazioa eta hausnarketa bideratzeko antolaera. • Kanpo erakundeak duen parte hartzea, bai inpaktu sozialaren adierazleak definitzeko orduan, bai inpaktu sozialaren ebidentziak biltzeko orduan.	30
BALORAZIO OROKORRA	100

27.2. Gainera, emakume ikertzaileak buru dituzten eskaeren kasuan (alde batera utzita ikertzaile nagusi bat edo bi dauden), bi puntu gehituko zaizkio ebaluazioari.

27.3. Finantzaketa lortzeko, nahitaezkoa da **50 puntutik** gorakoa izatea 1., 2. eta 4. irizpideen puntuazioen batura.

27.4. Modalitate honetako eskaeren ebaluazioa **fase bakarrean** egingo da, eta "ad hoc" eratutako balorazio batzorde bakar batek egingo du. Batzorde hori UPV/EHUko kide hauek osatuko dute, hain zuzen: Ikerketa errektoreordeak edo hark bere ordezkari izendatutako pertsonak; Harreman Instituzionaletarako eta Kulturako errektoreordeak edo hark bere ordezkari izendatutako pertsonak; Inpaktu Sozialaren zuzendariak; eta zuzendaritza horrek hautatutako beste bi pertsona, gehienez.

27.5. Gehienez bost proiektu esleituiko zaizkie ikerketaren jakintza arlo bakoitzean puntuaziorik handiena lortu duten proposamenei (horien guztien inpaktu soziala neurtuta), baldin eta 27.3 oinarrian adierazitakoa betetzen badute eta arlo horietan eskaeren % 10 aurkeztu badira. Irizpide horiek bete ezean, ebaluazio batzordeak proiektu bat baino gehiago esleitu ahalko du jakintza arlo bakoitzeko. Eskatutako aurrekontuak modalitate honetan ezarritako gehienera (20.000€) iristen ez badira, balorazio batzordeak aukera izango du proiektu osagarriari finantzaketa emateko, betiere eskuratu duten puntuazioaren arabera eta kreditua agortu arte.

27.6. Eskura dagoen finantzazio osoa (10.000 €) hautatutako proiektuen artean banatzen ez bada, balorazio batzordeak aukera izango du gainerako zenbatekoa hautatutako proiektuen artean banatzeko, betiere lortutako puntuazioen proportzionaltasuna bermatuta.

27.7. Modalitate hau proba pilotua dela kontuan hartuta, diruz lagundutako proiektuetako ikertzaile nagusiek konpromisoa hartu beharko dute Inpaktu Sozialaren Zuzendaritzarekin hiru bilera egiteko, deialdi hau ebaluatzen eta etorkizuneko edizioak hobetzen laguntze aldera, betiere, UPV/EHU'n inpaktu sozialaren kultura indartzeari begira.

27.8. Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei, aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratuko direla bermatzeko.

27.9. Balorazio batzordeak oinarri honetan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu aurkeztutako eskaera eta agiriak, eta proposamen bakoitzari 100 puntu eman ahalko dizkio, gehienez ere.

27.10. Balorazio batzordearen erabakiak irrimoak izango dira, eta aho batez edo gehiengoz lortu ahal izango dira.

OINARRI OROKORRAK

28. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA.

28.1. Proiektuaren ikertzaile nagusiak egin beharko du eskaera.

28.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Erabakian adierazitakoarekin (UPV/EHUko bitarteko elektronikoekin funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen du erabaki horrek), eskaera UPV/EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar da (<https://egoitza.ehu.eus>), hartarako ezarritako epean.

- Eskaera: eskaera zer modalitatetan egingo den adierazi beharko da.

- 1. modalitatea. Ikertaldean arteko lankidetzak proiektuak
- 2. modalitatea. Ikertzaile hasiberriek gidatutako ikerketa proiektuak
- 3. modalitatea. Europako proiektuetan lidergoa sustatzea
- 4. modalitatea. Latinoamerikarekin egiteko ikerketa proiektuak
- 5. modalitatea. Inpaktu soziala neurtzeko proiektuak

Gainera, zein unitateri zuzenduta dagoen ere adierazi beharko da: "Ikerketa Errektoreordetza – UPV/EHUren Ikerketarako deialdiak (U02000256)".

Izapide hau egiteko, egoitza elektronikoan identifikatu eta sinatzeko eskura dauden bitartekoetako edozein erabili ahalko da (BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria [FNMT-CERES]). "Ziurtagiri Digitalak" aukeran, Izenperen hodeiko ziurtagiri profesionala erabiliz sartzeko, beharrezkoa da hodeiko txartel birtual profesionala instalatuta edukitzea eta saioa hastea.

Sinadura bat edo batzuk jaso behar dituzten dokumentu guztietan, **sinadura guztiek elektronikoak** izan beharko dute beti, eta **aitortutako ziurtagiri** baten bermea izan beharko dute.

28.3. Modalitatearen arabera zehaztuko da zein dokumentazio aurkeztu behar den (PDF formatuan):

- 1. modalitatea:
 - Lankidetzak_Eskaera Eranskina
 - Lankidetzak_Memoria Eranskina

- 2. modalitatea:
 - Hasiberria_Eskaera Eranskina
 - Hasiberria_Memoria Eranskina
 - Proiektuko ikertzaile nagusiaren Curriculum Vitae laburtua (CVA), FECyT formatuaren arabera (<https://cvn.fecyt.es/editor/>).
 - 10.2.iii eta 10.4 oinarrietan zehaztutako kasuetarako, proiektuaren bizitza osoan lotura mantentzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpena.
- 3. modalitatea:
 - Europako Lidergoa_Eskaera Eranskina
- 4. modalitatea:
 - Latinoamerika_Eskaera Eranskina
 - Proiektuko ikertzaileen Curriculum Vitae laburtuak (CVA), FECyT formatuaren arabera (<https://cvn.fecyt.es/editor/>).
 - Parte hartzeko baimena, Latinoamerikako unibertsitateko ikertzaileen kasuan (20.5 oinarria).
- 5. modalitatea:
 - Inpaktu_Eskaera Eranskina
 - Proiektuko ikertzaileen Curriculum Vitae laburtua, FECyT formatuaren arabera (<https://cvn.fecyt.es/editor/>).
 - 25.1 oinarrian zehaztutako kasuetarako, proiektuaren bizitza osoan lotura mantentzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

Deialdian barne hartutako modalitate bakoitzerako inprimakiak deialdiaren webgunean egongo dira eskuragarri, bertatik deskargatzeko moduan.

I. eta II. modalitateen kasuan, proiektuaren memoria eskaeraren zatitzat joko da, eta ez da aukerarik egongo berau zuzentzeko.

28.4. Laguntzak eskatzeko epea **2025eko maiatzaren 30ean** hasiko da eta **2025eko ekainaren 23an** amaituko da.

28.5. Ikerketa Errektoreordetzak edo Graduondoko Latinoamerikako Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen duten dokumentazioa eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango diete eskatzaileei, aurkeztutako proposamena behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetu ahal izateko.

28.6. Deialdian parte hartzeak esan nahi du deialdiaren oinarriak berariaz onartzen direla.

29. oinarria.- ESKAERAK KUDEATZEA, IZAPIDETZEA ETA EBALUATZEA.

- 29.1. Ikerketa Errektoreordetzak kudeatuko ditu, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren bidez, deialdi honetan zehaztutako laguntzak.
- 29.2. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta horiek guztiak berrikusi ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak beharrezko datu edo baldintza guztiak jaso ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du Errektoreordetzaren web orrian, modalitateen arabera, eta zein datu zuzendu behar diren zehaztuta. Bost egun balioduneko epea irekiko da (zerrenda hori argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita), eskatutako dokumentazioa osatu edo zuzentzeko. Epe hori igarota, ulertuko da zuzendu ez diren eskaeren egileek atzera egin dutela.

30. oinarria.- LAGUNTZA EMATEKO EBAZPENA ETA LAGUNTZAREN ZUZKIDURA.

- 30.1. Eskaeren ebaluazio aldia bukatutakoan, sortutako batzordeek ebazpen proposamenak emango dituzte. IGBBak 1., 2. eta 3. modalitateetako ebazpenak proposatuko ditu, kasuan kasuko oinarrian ezarritako irizpideak betez lortutako puntuazioaren arabera (7. oinarria 1. modalitaterako; 12. oinarria 2. modalitaterako; eta 17. oinarria 3. modalitaterako), betiere, eskuragarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta. 22. eta 27.5 oinarrietan sortutako batzordeak, oinarri horietan ezarritako irizpideak baloratzeko sortutakoak, emango du 4. eta 5. modalitateetako ebazpen proposamena. Ebazpen proposamena Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, aurkeztutako eskaeren behin-behineko puntuazioarekin batera.
- 30.2. Eskatzaileek bost eguneko epea izango dute, proposamena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, laguntza onartzen dutela edo hari uko egiten diotela adierazteko, edo egoki irizten dituzten alegazioak aurkezteko.

Alegazioak oinarritzeko, ikertzaile nagusiak bere proiektuaren ebaluazio txostena eskatu ahal izango du, posta elektroniko bidez, helbide honetara idatzita: convocatoriasupvehu.dgi@ehu.eus.

Alegazioen dokumentua 23. oinarrian ezarritako jarraibideen arabera aurkeztuko da.

- 30.3. Adierazitako epea igaro bada alegaziorik aurkeztu gabe, behin-behineko ebazpen proposamena onartutzat joko da, eta ulertuko da interesdunak alegatzeko eskubidea galdu duela.

Ikerketa errektoreordeak laguntza hauen emakidari buruz emandako ebazpena Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da, eta banako ebazpena igorriko zaio eskatzaile

bakoitzari.

- 30.4. Aipatu banakako ebazpenaren kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak., Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz.
- 30.5. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
- 30.6. Deialdi honetako lau modalitateen bidez esleitutako laguntzak hornitzeko, behin betiko ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren ebazpenean proposatutako finantzaketa baldintzak onartzen dituen agiria sinatu beharko du eskaeran ikertzaile nagusi gisa agertzen den pertsonak.
- 30.7. Laguntza onartzeak esan nahi du, besteak beste, laguntza jasoko duen proiektua bera gauzatzeko erabili behar dela finantzazioa.

31. oinarria.- JARRAIPENA.

- 31.1. Ikerketa Errektoreordetzak antolatuko ditu emandako laguntzen jarraipena egiteko prozedurak.
- 31.2. Proiektua indarrean dagoen bitartean eskabidean aurkeztutako taldeen osaera aldatzen bada, Ikerketa errektoreordeari baimena eskatu beharko zaio, eta berak kudeatuko du ebazpena. Ez da ikertaldean bazarik onartuko, ez bada ezinbesteko kausaren batek justifikatuta dagoela.
- 31.3. Laguntzaren indarraldia amaitu eta hurrengo 3 hilabeteetan, txostena egin beharko da lortutako emaitzak jasota. Amaierako txosten hori idazteko, horretarako osatutako inprimaki bat erabili beharko da, eta ikertzaile nagusiak sinatu beharko du.
- 31.4. Amaierako txostena aurkeztu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egingo da:
- Ikertaldeen arteko lankidetzaren proiektuen kasuan: eskaeran adierazitako ikertaldeko kideen baterako emaitzetan oinarrituko da ebaluazioa (argitalpenak, patenteak, prototipoak eta merkaturatu daitezkeen gainerako produktuak...). Bereziki, Europako proiektu bat aurkezten laguntzeko proposamen bat prestatzeko laguntzen kasuan, proposamena lortu den ebaluatuko da.
 - Ikertzaile hasiberriek gidatutako proiektuen kasuan: ebaluazioa proiektutik eratorritako ikerketa eta transferentzia emaitzetan oinarrituko da (argitalpenak, patenteak, prototipoak eta merkaturatu daitezkeen gainerako produktuak...).
 - Europako proiektuetan lidergoa sustatzera bideratutako kasuetan: proiektu koordinatuan planteatutako helburuen betetze mailaren arabera egingo da

ebaluazioa, eta proposamen berri bat aurkeztuko zaio Europako Ikerketa Kontseiluari.

- Latinoamerikarekin egiteko ikerketa proiektuen kasuan: Latinoamerikako unibertsitateekin ikerketa arloko harremanak sustatzera eta sendotzera bideratutako helburuen betetze mailan oinarrituko da ebaluazioa.
- Inpaktu soziala neurtzeko proiektuen kasuan: inpaktu sozialari lotutako adierazleak identifikatzean, UPV/EHUri esleitu dakizkiokkeen eskuduntza mailan eta ekarpenean oinarrituko da ebaluazioa, baita inpaktu sozialaren ebidentzien kalitatean ere.

31.5. Modu deszentralizatuan egindako gastuen kasuan, finantzatutako ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiari dagokion sail edo institutuan artxibatuko dira faktura originalak. Faktura horiek eskuragarri egongo dira Ikerketa Errektoreordetzak, UPV/EHUko Barne auditoretzako zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztapenen bat egin behar dutenerako, eta hala, deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz beren zereginen baitan eskaturiko edozer informazio eman beharko zaie. Inola ere ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko agiriak galtzeagatik.

31.6. Proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio proiektuari; hau da, epe horretan egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

32. oinarria.- EMAITZEN ZABALKUNDEA ETA USTIAPENA.

32.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo bestelako zientzia gertakariak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, baita erakundearen irudi korporatiboa ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

32.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundearen zerrenda. Bereziki, erreferentzia egin beharko zaio UPV/EHUri eta deialdi honi.

32.3. Ikerketa jarduerak aurrera eramanez, patentagarria izan litekeen edo jabetza intelektuala bestelako elementuen bidez babes litekeen emaitzarik egongo balitz, emaitza horiek Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko zaizkio, horien erregistroa egin dezan, pertsonal espezializatuak hala iritziz gero. Erregistratuz gero, UPV/EHU izango da patenteen eta

jabetza intelektualaren titularra.> Asmakizunean parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Nolanahi ere, UPV/EHUren jabetza intelektualaren eta industrialaren araubidea errespetatu beharko da.

33. oinarria.- LAGUNTZA EMATEKO BALDINTZAK ALDATZEA.

33.1. Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat edo beste aldatuko balitz, betiere deialdiaren helburua bete egin dela ziurtatuta, edota taldeak beste erakunde publiko edo pribaturen baten bestelako laguntzarik jasoko balu, horrek bere garaian laguntzak esleitzeko emandako erabakia aldatzea ekar lezake, eta, horren bidez, proiektuari esleitutako aurrekontua murriztea edo, hala badagokio, kentzea.

Ebazpena emateko, aldezturik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean araututako administrazio prozedura bideratu beharko da, proposamena egin duen organoak (IGBBak 1., 2. eta 3. Modalitateetan, edo ebaluazio batzordeak 4. eta 5. modalitateetan) proposatuta edo txostena egin ondoren, eta berariaz jakinaraziko zaio ikertaldearen ikertzaile nagusiari.

33.2. Ondorio horietarako, ulertuko da laguntza emateko oinarri izandako baldintzak aldatu egin direla, besteak beste, honelako kasuetan:

- a. Ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiak proiektua gauzatzeari uko egitea, edo proiektuko ikertzaile nagusia UPV/EHUkoa ez den beste erakunde batera lekualdatzea, horrekin arriskuan jarrita proiektuaren zuzendaritza eta aurreikusitako helburuak lortu ahal izatea.
- b. Ikerketa proiektu berbererako beste iturri batzuetatik diru laguntza jasotzea, edo beste erakunde, entitate edo zentro publiko edo pribatu batzuei ikerketa proiektu beraren aldakiak aurkeztea, behar bezala justifikatu gabe eta finantzaketa eskatzeko xedez, baldin eta aldezturik Ikerketa Errektoreordetzari horren berri eman ez bazaio. Kasu hori ez da aplikatuko 4. modalitateari dagokionean (Latinoamerikarekin egiteko ikerketa proiektuak).
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian urratzea.
- d. Eskarera datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Ikerketa proiektuetako ikertaldeetako kideen kopurua murriztea.
- f. Jarduera finantzatzeko deialdian barne ez dauden gastuak egitea, edo UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak ez bete gabe egitea gastuak.
- g. Horrekin lotuta, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo erosketaren bat eginez gero, laguntzaren emakida baliogabetu egingo da, erabili

gabeko finantzaketa kenduko da eta, hala badagokio, proiektuan laguntzen duen erakundeari itzuli beharko zaio emandako kopurutik une horretara arte erabili ez dena.

34. oinarria.- LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZURIZUNA.

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio; besteak beste, dirulaguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

35. oinarria.- DATU ETA IRIZPIDE ETIKOEN BABESA IKERKETA JARDUERETAN.

- 35.1. Europako Parlamentuaren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrearekin eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritik, deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko dira, zeinaren helburua izango baita laguntzen deialdi hau kudeatzea. Fitxategi horren organo arduraduna UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetza da. Deialdian parte hartzen dutenek arautegi horrek aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte.
- 35.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, honako baldintza hauek bete behar dira:
 - a. Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokioko Adierazpena, 2004).
 - b. Indarreko legeria betetzea: 14/2007 Legea, ikerketa biomedikoari buruzkoa; 1716/2009 ED, biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena; baita Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia ere.
 - c. Aldez aurretik, Gizakiekin eta haien Datu nahiz Laginekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordearen (GIEB-UPV/EH) nahitaezko aldeko txostena lortzea, UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duenez (Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2014ko urtarrilaren 30ekoa; 2014.02.17ko EHAA, 32. zk.).

35.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a. Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak errespetatzea.
- b. Animaliekin ikertzearen arloko indarreko arautegia betetzea (53/2013 ED).
- c. Aldez aurretik, Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB-CEEA) nahitaezko aldeko txostena lortzea, UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duenez (Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2014ko urtarrilaren 30ekoa; 2014.02.17ko EHAA, 32. zk.).
- d. Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

35.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a. Giza osasuna eta ingurumena babestearen inguruko prebentzio, zuhurtasun eta informazio printzipio etikoak errespetatzea.
- b. Arlo horretako indarreko arautegia betetzea (31/1995 Legea, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa; 664/1997 ED, langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babestekoa; 665/1997 ED, langileak lanean ari diren bitartean agente kantzerigenoekiko esposizioaren arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoen erabilera konfinatuaren, askapen boluntarioaren eta merkaturatzearen araubide juridikoa ezartzen duena).
- c. Aldez aurretik, Agente Biologikoekin edo GEOekin Egindako Ikerketarako Etika Batzordearen (ABIEB-UPV/EHU) nahitaezko aldeko txostena lortzea, UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntza jarduerarako etika organoak arautzen dituen Erregelamenduak jasotzen duenez (Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2014ko urtarrilaren 30ekoa; 2014.02.17ko EHAA, 32. zk.).

36.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan giza enbrioien enbor zelulak edo haietatik eratorritako zelula lerroak erabiliko badira, beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen; baita 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza lagun biologikoak zuzen eskuratu eta erabiltzeko, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, ikerketa biomedikorako biobankuen baimen eta funtzionamendurako eta giza jatorriko lagin biologikoen tratamendurako oinarritzko baldintzak ezartzen dituen, eta

ikerketa biomedikorako Biobankuen Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolaketa arautzen dituen (2011ko abenduaren 2ko BOE, 290. zk.).

36.6. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ezta, zehazki, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enprekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala eta guztiz ere, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da Ikerketa errektoreordearen aurrean, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorruta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.

Deialdi hau Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Leioan, data honetan: 2025eko ekinaren 18a.

Juan Ignacio Umerez Urrezola

Ikerketa errektoreordea